

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 2017/5/S596)

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesdunak: María Sagrario Moreno Serrano eta Amara Cuadra Moreno.

Erabaki hau ezin izan zaionez jakinarazi interesdunari, haren oraingo bizilekua ezezaguna delako, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 44. artikuluan agintzen duena betetzeko, iragarki hau BOEn eta, lehenago, nahi izanez gero, ALHAOn eta udal honen iragarki taulan argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 18/028 Ebazpena, zeinak hitzez hitz honela dioen:

“2018ko otsailaren 2an ebazpena eman zen (18/028 Dekretua); zuri dagokizunez, jakinarazten zaizun hau jasotzen du:

M. T. M. U. jaunak/andreak, Intxaurdui kaleko 6ko 7. esk. etxebizitzaren alokairu kontratuaren titularrak, 2017ko urriaren 20an aurkeztutako idazkiaren bidez udalari jakinarazi dio María Sagrario Moreno Serrano eta Amara Cuadra Moreno arauz kanpo erroldatuta daudela biztanleen udal erroldan, pertsona horiek ez baitira aipatutako etxean bizi. Hortaz, ez dituzte betetzen Biztanle eta Lurralde Mugei buruzko Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutakoak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Ikusirik udaltzainek egindako txostena, ondorioztatzen da zerrendatutako pertsonak ez direla etxe horretan bizi.

Bat etorritz arautegi horren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutuko lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko baterako Ebazpenarekin, zeinaren bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udal erroldak kudeatzearen gainean eta, zehazki, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik bajak ematearen gainean, eta, orobat, aplikazio orokor eta bi-dezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, aitortzen zaizkion ahalmenak erabiliz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetu dadin onartzea, eta ofizioz espedientea abiaraztea ondoren zerrendatzen diren pertsonen baja emateko Amurrioko Udalaren biztanle erroldan, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik:

IZENA ETA DEITURAK		AGIRIA
1	MARIA SAGRARIO MORENO SERRANO	30.660.388-P
2	AMARA CUADRA MORENO	44.688.967-J

Bigarrena. Eragindako pertsonen ebazpen hau jakinaraztea udalerrin honetan izan duten azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten agiri eta frogagiriak aurkeztu eta egiaztatzeko udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta daudela, edo, bestela, beren errolda egoera erregularizatzeke, udal honi jakinaraziz helbidea nora aldatu duten edo egun zein udalerritan bizi diren.

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2018ko otsailaren 2a. Fede ematen dut nik, idazkariak. Alkatearen eta idazkariaren izenpe eta errubrika elektronikoak.

Jakin dezazuen eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizuet.”

Amurrio, 2018ko martxoaren 9a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA